FORU OGASUNAREN ERAIKINA — OKENDO 20

C MAILA — **2A BIDEA**





José María Yturriaga, 1965.

Deskribapena

Arkitektura modernoko adibide nabarmena zabalduran, azken urteotan erreforma bat izan duen eraikinaren jatorrizko egoerari dagokionez batik bat. Eraikin honen lehen erreferentzia 1958an irabazitako Aurreproiektu Lehiaketan dago. Hala ere, behin betiko proiektua 1965ekoa da, José María Yturriaga arkitektoarena, oinplanoaren antolamendu orokorrari soilik eutsi ziona bulegoen, zazpi solairuren eta 928 m^2-ko partzelaren banaketan, eta komunikaziogunearenari. Yturriagak diseinatu zuen fatxada nabarmena da arotzerien formatuagatik, bai haien geometrian, bai kanpo planoko posizioan, balkoietan izan ezik, aldagaiak eta bao urratu horizontalaren ebakiak dituen ideia bat. Oinplanoko banaketak kanpoko itxurarekin du lotura, batetik bulegoen erabileren eta bestetik erakusmahaia duen bulego irekiaren antolamendu argi batekin, hori guztia solairu bakoitzean espazio oso bat lortzeko asmoz. Nabarmena da fatxadaren atzeraemangunea, sarbide nagusia hartzeko eta angelu zuzeneko eta alakarik gabeko kantoia ebazteko balio duena.

Babes erregimena.

1.- Babes erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu behar den arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Babes erregimen espezifikoa:
- A. Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: Harrizko plakazko estaldura.
- B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: Ez.
- C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Ez.
- D. Nahitaezko lehengoratzeak:
  - * Jatorrizko harrizko plakazko estaldura eta leihateen jatorrizko geometria.
  - * Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotutako gainerakoak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.